

Euskadi, ekintzailetza-ekosistema egonkorrenen eta baloratuenen artean, GEM 2024-2025 txostenaren arabera

Observatorio Vasco del Emprendimiento - Euskal Ekintzailetzaren Behatokiak (EEB-OVE) Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) Global Entrepreneurship Monitor (GEM) 2024-2025 txostenaren emaitzak aurkeztu ditu. Dokumentuak euskal ekintzailetza-ekosistemaren bilakaera aztertu du nazioarteko konparazio-testuinguru batean eta bere indarguneei eta erronkei buruzko ikuspegi eguneratua eskaini du.

GEM proiektua munduko ekintzailetza-datuaren iturri nagusia da, eta, horren bidez, Euskadiren egoera beste eskualde eta herrialdeen egoerarekin alderatu daiteke.

Hibridalaben (Vitoria-Gasteiz) egindako Aurkezpen ekitaldian honako hauek parte hartu dute: Saray Zárate Fernández de Landa andrea, Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren foru diputatua; Ane de Ariño Ochoa andrea, Eusko Jaurlaritzako Ekintzailetza eta Nazioartekotze zuzendaria; eta Maria Saiz andrea, EEB-OVEko presidentea. Erakunde-ordezkariek Euskadik ekintzailetzan dauzkan erronkei eta aukerei heldu zieten.

Txostena honako erakunde hauen parte diren EEB-OVEko adituek egin zuten: Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) eta Mondragon Unibertsitatea. Informazio baliagarria eskaintzen du ekintzailetza-jarduera eta horren kultura sustatuko duten politika publikoak bideratzeko.

GEM 2024-2025 txostenaren funtsezko bost ondorio

1. Euskadi erreferentzia-ekosistema da eta joera hazkorra eta egonkorra du. EAE estatuko ekosistema baloratuenetako bat da, Madrilgo Erkidegoarekin batera, eta nazioarteko konparazioan ere nabarmen da, EB-27ko batez bestekoaren gainetik. Ekintzailetza-jardueraren tasa (TEA) modu egonkorrean hazi da eta biztanleria helduaren % 6ra heldu da, eta 2004tik aurrerako batezbesteko historikoa gainditu du (% 4,7).
2. Porrotaren beldurra murriztu da. Lehenengo aldiz, EBko batez bestekoarekin (% 50,6), Alemaniarekin (% 48,8) edo Estatu Batuekin (% 49,5) homologa daitekeen porrotaren beldurraren proportzioa du EAEk (% 48,9).
3. Ekintzaileen profila aldatzea: adinaren murrizketa eta migratutako kolektiboaren sustapena. Hasierako faseko ekintzaileen batez besteko adina 44 urtetik 38 urtera jaitsi da, azken hamarkadako daturik baxuenetako bat. Gainera, migratutako ekintzailetza-tasa % 3,8tik % 15,5era hazi da; erdia baino gehiago (% 54,6) Europako beste herrialde batzuetatik dator.
4. Inpaktu handiagoa ekintzailetzan, enpleguan eta industrian. Maximo historikoa lortu da ekintzailetza industrialaren proportzioan (% 12), aurreko urteetako ia bikoitza. Horrez gain, hazi egin da plantillan 20 pertsona baino gehiago dituzten proiektuak (% 5,6, 2023ko % 1,5ekin alderatuta) eta bikoiztu egin da proiektuko enplegu-kopurua (5, 2023ko 2,3ekin alderatuta). Halaber, aurrekaririk gabeko hazkundearen erregistratu da sortutako negozioen orientazio berritzailean, produktuan, zerbitzuan eta erabilitako teknologietan, fakturazioaren % 25 baino gehiago esportatzen duten enpresen igoerarekin batera.
5. Genero-arrakala eta ekin ahal izateko baliabideak. Ia parekotasuneko joera hautsi egin da ekintzailetzan. EAEk ekiteko zenbateko ohikoena 25.500 eurokoa izan da, baina gizonek

emakumeek baino bi aldiz kapital gehiago mobilizatzen dute batez beste (30.000 € eta 12.204 €).

Ondorio horiek panorama zabala eskaintzen dute Euskadiko ekintzailtzaren egoerari buruz eta aukerak eta erronkak islatzen dituzte.

Erakunde- eta gizarte-garrantzia

GEM 2024-2025 txostenak Ekintzailtzaren Euskal Behatokia EEB-OVEk Euskadiko enpresa-ehunaren berrikuntzarekin, eraldaketarekin eta indartzearekin duen konpromisoa berretsi egin du. Datuak erakundeentzat baliagarriak izango dira ekintzailtza-ekosistema inklusiboagoa, lehiakorragoa eta jasangarriagoa diseinatzeko.

Ikerketa Euskadin 4.300 pertsona baino gehiagori egindako inkesta batean oinarritu da. Izan ere, inkesta horrek aukera ematen du joera globalak, ekintzaileen ezaugarriak eta garapenean dauden jarduera-sektoreak identifikatzeko, betiere nazioarteko alderaketa ikuspegi baten menpe.

EEB-OVEri buruz

Euskadiko Ekintzailtzaren Behatokia EEB-OVE EAEko ekintzailtzari buruzko datuak neurtzeko eta interpretatzeko erreferentzia-tresna da. Bere xedea da ekintzaileen, enpresen eta erakundeen babes gisa finkatzea.

Ikerketa-taldeak honako hauei eskertzen die emandako laguntza: SPRI, Enpresen Garapenerako Euskal Agentzia; Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saila; Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Saila; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak Saila; Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapena eta Berrikuntza Saila; eta FESIDE, Emilio Soldevilla Fundazioa. Esker bereziak berriro ere SPRIri, EAEko GEM proiektuaren nazioarteko bazkide den aldetik, eta Eusko Jaurlaritzako Ekintzailtza eta Nazioartekotze Zuzendaritzari.

Informazio gehiago

Informazio osoa hemen ikus daiteke: www.eeb-ove.eus

EEB-OVEko presidente María Saiz andrearekin elkarrizketak egiteko hemen:

✉ info@eeb-ove.eus

☎ +34 633 904 658<0}